



Mezan agurra dantzatu zuten eta Pilar Catalina sopranoak Amaia Dorronso organojolearen laguntzarekin abesti ederrak eskaini zituen. Mezatik irteteen trikitilariak aritu ziren giroa alaitzen.

Karmengo amaren omenez hainbat ospakizun Orian

Oria auzoko bizilagunek haien zaindarien Karmengo Amaren eguna ospatu zuten larunbat goizean.

Solano trikitilari eskolako gazteak, Kristiñe Solano gidari zutela, goizeko 10:00ak aldera hasi ziren kaleak girotzen eta haien doinu alaietz, auzotarrak Karmengo kaperan eguerdiko 12:00etan egin zen mezetara joatera gonbidatu

zituzten. Mezara herritar ugari bildu ziren, esaterako Pablo Barrio alkatea, Jesus Zaballos alkate ohia eta hainbat zinegotzi.

Juan Luis Muruak zuzendu zuen oriatarren zaindarien meza, Xabier Andonegi eta Ramon Uribetxeberriaren laguntzaz.

Urtero legez, aurten hildako auzotarrak izan ziren gogoan.

Pilar Catalina sopranoak, Amaia Dorronso organoan lagun zuela, mezetako hainbat tarte musikaz girotu zituen, horien artean *Ave Maria* zoragarria eskaini zuen.

Elizkizuna amaitzerakoan, trikitilariak auzotarren irteera girotu zuten. Eta ostean, lunch gozo bat dastatzeko aukera izan zuten hurbildu ziren guztiek. •



Meza ondoren lunch gozo bat dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.



Joseviskyren Umora zintak marrazten saiatu zen komikilaria erakusketa Jalgin /4

KIROLA/2
Lasarte-Oriako Tenis Txapelketako bigarren edizioko finala jokatu zen ostiralean



Haritz Borda lasarteoriatarak Huelvara egin du bertako bigarren mailako taldera /5

Udako Txokoak 2011

ABUZZURAKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALK

Izena emateko azken eguna uztailaren 22a

Garaikoetxean 10:00-13:00

Abuztuaren 1etik 26ra

Ttakun Geltoki kalea 4. • Tel.: 943 371448 • aisia@ttakun.com • www.ttakun.com





Santi Lorenzo izan zen Lasarte-Oriako ordezkari bakarra ostiralako partidetan.



Nahiko erraz irabazi zuen Quintana azpeitiarrak finala.

Quintana garaile Tennis Txapelketan

Ostiral arratsaldean jokatu zen Michelinen Lasarte-Oriako Tennis Txapelketako bigarren edizioko finala.

Uztailaren 1ean hasi zen Lasarte-Oriako Tennis Txapelketako bigarren edizioa eta ostiral arratsaldean, Michelingo Kirol Gunean jokatu ziren finala eta hirugarren zein laugarren postuak.

Txapelketa honetan guztira 32 jokalarik hartu dute parte, horietatik batzuk lasarteoriatarra eta gehienak inguruko herritakoak, batez ere Donostiakoak.

Eguraldi eta giro ederra izan zuten jokalariek ostiral arratsaldean partidak jokatzeko garaian, ez zegoen bero handirik eta hori eskertu zuten.

Kontsolazioa

Hirugarren eta laugarren postuak finalarekin batera jokatu ziren. Santi Lorenzo lasarteoriatarra eta Mikel Espinal irundarra neurtu ziren buruzburu eta Lorenzo herritarra

gailendu zen 6-2 eta 6-4 emaitzarekin.

Finala

Ordu bete inguru iraun zuen finalak, ez iaz bezala, hiru ordu pasatxo aritu zirela jokatzen. Agustin Quintana azpeitiarrak eta Iñaki Artano andoaindarrak jokatu zuten finala eta 6-1 eta 6-1 emaitzarekin irabazi zuen Quintana azpeitiarrak.

Sari-banaketa eta zozketa

Bi partidak amaitutakoan sariak banatu zituzten antolatzaileek Taxio Arrizabalaga Kiroleko Batzordeburua eta Pablo Barrio alkatearekin batera.

Sariak banatu ondoren, parte-hartzaile guztien artean materiala zozketatu zuten (kamisetak, motxilak, fundak...). Antolatzaileak gustura daude izandako parte-hartzaileekin eta giroarekin. •



Irudian, antolatzaileak, jokalariek eta Udaleko ordezkariak sariak banatu ondoren.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Ane Labakak X. Plazatik Gaztetxera bertso lehiaketako txapela jantzi zuen

Lasarte-Oriako Bertso Eskolan dabiltzan Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz bertsolari gazteek ere Mutrikuko gaztetxean uztailearen 1ean jokatu zen finalean parte hartu zuten

Bertsolari Gazteen X. Plazatik Gaztetxera txapelketaren finala uztailearen 1an, jokatu zen leporaino beteta zegoen Mutrikuko Gaztetxean.

Oihana Iguaran, Aitor Salegi, Peio Ormazabal, Ander Zulaika, Hodei Iruretagoiena eta Lasarte-Oriako Bertso Eskolako Ane Labaka herritarra, Beñat Iguaran amasarra eta Asier Azpiroz zubietarra izan ziren kantuan.

Hala baina, finalera iristeko sailkapen saioak gainditu behar izan zituzten Bertso Eskolako hiru gazteek.

Gipuzkoako txapelketa prestatzeko egindako lana ageria izan da txapelketa honetan. Beñat Iguaran eta Ane Labakak haien sailkapeneko saioan zuzeneko txartela lortu zuten. Asier Azpirozek, aldiz, bere saioan lortutako puntuengatik lortu zuen sailkapena.

Sailkapen saioak

Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz ekainaren 17an egin zen Elgoibarreko sailkapen saioan aritu ziren.

Bertso saio polita izan zen Elgoibarrekoa. Honetan, Lasarte-Oriako bertso eskolako kideez gain, Mikel Olaizola, Ander Solozabal, Peru Vidal eta Adur Gorostidik abestu zuten.



Ane Labaka Plazatik Gaztetxera lehiaketako garaile izan zen. Irabazle txapelerekin agurra eskaini zuen.

Arg.: Topatu.info

Ofizioko lanean eta Zortzi handian ongi ibili ziren bertsolari guztiak. Asier Azpiroz bizi egon zen saio osoan eta Beñat Iguaran Zortziko txikian eta bakarkako lanean aritu zen fin.

Azkenean, Iguaran amasarra gora behera gutxien izan zituen bertsolaria izan zen eta horregatik, epaileek buruz burukoa jokatzeko aukeratu zuten, 199 punturekin. Bestalde, bertsozaleek Mikel Olaizola aukeratu zuten.

Biek hiruna bertso bota

zizuten eta Iguaran izan zen garaile. Makila berezia eta sagardoa eraman zituen etxera gazteak.

Saio honetako sailkapenean Iguaranen atzetik, Asier Azpiroz zubietarra geratu zen 194 punturekin eta sailkapen saio guztiak jokatu ostean, puntu hauek baliagarriak izan ziren finalean egoteko.

Ane Labakak, aldiz, ekainaren 18an Sorraluzen izan zuen sailkapen saioa.

Eneko Beretxinaga, Josu Urain, Eneritz Artetxe, Ion

Mikel Mujika eta Enaitz Alustiza izan zituen arerio.

Saio polita, arina eta bizia izan zen. Bertsolari guztiak ondo egin zuten lan eta Anek maila oso ona erakutsi zuen.

Epaileek puntuaketa gehien eman zioten, 203 puntu, eta entzuleek aukeratutako Josu Urainen aurka egin behar izan zuen buruz burukoa.

Hamarreko txikian egin zituzten Anek puntu gehien eta horregatik, sailkapeneko garaile izan zen. Oroigarri gisa, antzemateko moduko

txapela eta txotxongiloa izan zituen herriko bertsolari gazteak.

Finala

Gauzak honela, finaleko saioan zortzi bertsolariak pareko ibili ziren eta nabarmentzekoak izan ziren Ane Labaka eta Beñat Iguaran.

Hala baina, epaileek lasarteoriatarra aukeratu zuten buruz burukoan egoteko, lan borobila egin baitzuen herriko gazteak 153 puntu lortuta.

Labakaren atzetik, Beñat Iguaran izan zen puntuazioan, 150,5, eta Azpirozek, berriz, 144,5 puntu lortu zituen.

Hala ere, ezin izan zen herriko bertso eskolako kideen arteko norgehiagoka ikusi. Publikoak, Aitor Salegi nahia go izan zuen, jokoa eman baitzuen saioan botatako bertsoetan.

Buruz burukoan, saio osoan zehar bezala, Ane izan zen nagusi. Aipatzekoak dira Labakak egindako kartzelako lana eta Saturrarango kartzelan gertatutako irabazle izan zen Ane Labaka.

Bertsolariek Mutrikuko gaztetxeko zapia eta "Gaztetxeak kontserba ditzagun" lelopean kontserba lata bat duen egur zati bana izan zituzten oroigarri moduan. •

Adarra kaleko babes ofizialeko etxeen zozketako zerrendak onartu dira

Lasarte-Oriako Udalak Adarra kalean eraikitzen ari diren Babes ofizialeko 100 etxebizitzaren zozketan sartzen diren eskaeren behin betiko zerrenda onartu ditu.

Zerrenda hauek Ekonomia, Ogasuneko eta Ondareko Departamentuan dagoen iragarki-taulan begiratu daitezke, baita udalaren web orrian ere, www.lasarte-oria.org, Babes Publikoko etxebizitzaren atalean, Sustapenen barruan.

Zerrenda hamabost egunez egongo da ikusgai herritarrek erreklamazioak jar ditzaten. Hau egiteko epea uztailearen 19an, hau da, bihar amaituko da. •



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

Adarra kaleko etxebizitzaren zozketako zerrendak ikusi eta erreklamazioak egin daitezke.



GERTAERA

Sutea Pablo Mutiozabal kalean

Ostegun eguerdian, Pablo Mutiozabal kalea ordu betez, gutxi gorabehera, itxi behar izan zen, kale honetako atari batek su hartu baitzuen.

Udaltzainak, Ertzaintza eta su-hiltzaileak hurbildu ziren Pablo Mutiozabal kaleko 3. zenbakira. Sua itzali eta honen abiapuntua bilatu zuten su-hiltzaileek.

Atariko sabail aitzuneko (sabail faltsua) klabeetan izan zen zirkuitulabur baten ondorioz sua sortu zela uste dute. •

Joseba Larretxe, *Josevisky* Komikigilea

“Tarte txikian istorioa kontatu behar izatea erronka bat izan da”

Jalgi kafe antzokian *Umore zintak* marrazten saiatu zen komikilaria erakusketa dago ikusgai

Joseba Larretxe, *Josevisky*, 26 urteko irundarra da. Arkitektura ikasle izateaz gain, Euskal Herriko komiki lehiaketa ugurira aurkeztu da eta laguntzako bideoklipak ere egiten ditu. Hilabete amaiera arte, bere lanen erakusketa, *Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria*, dago Jalgi kafe-antzokian eta horietako bat, *kkldo* komikia erosteko aukera dago, 3 euroren truke.

NEREA EIZAGIRRE

Noiz hasi zinen komikiak egiten? Eta umorezko zintak?

Egin nuen lehengo komikia Irungo ikastolen elkarteak antolatutako lehiaketa baterako izan zen, 9 edo 10 urterekin. Eta hara non irabazi egin nuen. Agian horrek bultzatuta animatu nintzen nire istorioak asmatzera.

Umore zintak ordea, beranduxeago etorri ziren. Oroitzen dudana lehenengo DBHn izan zen, irakasle baten karikaturrekin.

Baina modu serioago batean duela 5 urte hasi nintzen umore zintekin, *Berria* egunkariaren *Matraka* gazteenzako gehigarriko egin nuen *Euskal Frikia* pertsonaiarekin.

Nondik datorkizu komikiak marrazteko zaletasuna?

Nire ustez txikitandak denok marrazten dugu. Kontua da gero zaletasun hau galtzen joaten garela. Nik marrazten jarraitu dut, etengabe.

Era berean, egia da komikien zaletasuna etxetik dator-kidala. Aita eta anaia marrazle onak eta komiki irakurleak dira. Urtetan joan

izan gara elkarrekin Baionako komiki denda batera komikiak erostera.

Nolako komikiak egin ohi dituzu?

Azken aldian orribetako umore edo gaurkotasan zintak egitea tokatu zait, baina hori baino lehen Euskal Herriko komiki txapelketa guztietara aurkeztu izan naiz eta gehienak 4 orrialdetako formatua izaten zuten.

Komiki hauek txuri-bel-tzean egiten nituen eta nabarmenki jotzen nuen zientzia fikziora. Uste dut nire gai kuttuna dela.

Zergatik aukeratu dituzu umorezko zintak erakusketa egiteko? Batez ere egin ditudan azkeneko lanak direlako aukeratu ditut umore zintak. Esan dezagun erakustekoak lotsa gutxien ematen didaten komikiak direla!

Gainera, horrela erakustetari gai bat jartzeko aukera nuen. Erakusketan jarritako umore zintak marraztu baino lehen beste modu batetako komikiak marrazten nituela egia da, hortik erakusketaren izena: *Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria*.



Laboaren omenezko komikia erakusketan ikusi daitekeen lanetako bat da.

Erakusketan ikusi daitekeenez, aldizkari desberdinetarako, umorezko zintak egiten dituzu. Ez al da zaila gaiari edo eguneko tasunari mugatua egotea? Eta hain tarte txikian guztia margotu eta laburtu behar izatea?

Gaurkotasan gaie mugatu behar izateak muga baino gehiago laguntza suposatzen du niretzat istorioak asmatzeko orduan, hasiera bat ematen dizutelako.

Gainera, gaurkotasuneko gai bat ez zuen istorio on bat bururatzen zitzaidanean inork ez zidan mugarik jartzen nahi nuena marrazteko, batez ere *Matrakan* eta *Nabarra* aldizkarian. *Aldiri* arkitektura aldizkariak gai konkretu bat izaten du ale bakoitzean eta nire zinta ere gai horri egokitu behar izaten zen.

Tarte txikian istorioa kontatu behar izatea ordea bai izan dela erronka bat niretzako. Beste formatu batetara ohitua egonda batzuetan orri bakarrean bineta gehiegi sartzen saiatu izan naiz, komiki eta umore zinta arteko nahasketak arraroak eginez.

Erakusketan marrazki eta zintak zirriborroak ere ikusi daitezke, nolako da komikia egitearen prozesua?

Ekintza sortzaile oro bezala, buruan hasten da prozesua.

Komikia buruan nahiko argi izan baino lehen ezer gutxi marrazten hasten naiz.

Gero, *story-board* modura bineta solteak marrazten ditut irudi sekuentzia erabakitzeko.

Ondoren, zirriborro ezberdinetan aukeratutako binetak orrialde batean ordenatzen ditut orriaren forma egokia topatu arte.

Azkenik, komiki originala marrazten dut. Beti hasten naiz arkatzez, batzutan tinta gehitzen diot eta bukaeran ordenagailuz koloreztatzen dut.

Esan beharra daukat hasierako zirriborro guztien prozesua saltatu egiten dudala denboraz larri banabil.

Marrazteko estilo desberdinenak, hau da, karikatura, errealista, etab. erabiltzen dituzue gaiaren arabera, ezta?

Bai. Komiki bakoitzak "tonu" bat du, eta marrazkien karkaturizazio maila honen arabera

erabakitzen dut. Baina tonu honek komikiaren forma eta koloreak ere baldintzatzen ditu. Adibidez, Mikel Laboaren omenez egin nuen zintan estilo errealista eta kolore gama oso hitsa erabili nituen.

Zinta edo komikia egitean, marrazkia egin eta bestea jarzteaz ez al da zaila?

Normalean komikigintza profesionalean komikiak marrazkilaria eta gidoigile baten artean egiten dira.

Gertatzen dena da Euskal Herria oso txikia dela eta gure komikigintza oraindik txikiagoa, eta zaila da modu profesionalean horrelako talde sortzaileak elkartzea.

Beti nago gidoiak idatziko dizkidan idazle baten bila. Elkarrizketa hau irakurtzen duen idazlerik interesatuta balego, jarri nirekin kontaktuan beldurrik gabe!

Umorezko zintez gain, Jalgi *kkldo* proiektuko komikia ere ikusi dezakegu. Zer suposatzen du komiki horrek zuretzat?

Komiki horrekin umore zintak marrazten hasi baina lehenagoko gaiak eta formatuak berreskuratzen ditut bidean ikasitako guztia aplikatuta. Nire benetako estiloa kontsideratzen dut eta nire gogo guztiekin marraztu dut.

Komiki honen istorioa Lazaro Yak Boldo zinemagilearekin batera garatu dut elkarlanean, eta gainera, Berako nire lagun taldearekin web orrialde bat egin dugu komikia plazaratzeko: www.kkld.com.

Nahi duenak bertatik deskargatu dezake komikia *Creative Commons* lizentziarekin edo on-line irakurri Joseba Baleztena musikariak egindako soinu banda entzuten duen bitartean.

Eta orain dituzkue dira esku artean zintak proiektuak?

Orain buru belarri nabil *kkldo* web orrirako bigarren komikiak marrazten.

Oraingoan Lazarok labor-metria baterako egindako gidoia komikituko dut. Ariketa polita izango da, azkenean labor-metria egin gabe geratu bait zen. Berak gidoia pasatzerakoan esan zidan komikia nik nahi bezala egiteko eta ez erakusteko ezer bukatu arte.

Beraz, elkarlan independente bat izango da. •



Joseba Larretxeren komiki eta umorezko zintak daude Jalgi kafe-antzokiko erakusketan.

Haritz Borda Futbolaria

“Esperientzia berria eta berezia da”

Haritz Borda lasarteoriatarak Huelvara egin du bertako bigarren mailako taldean lehiatzeko

Haritz Borda Etxezarreta lasarteoriatarak bizitza erdia darama futbolari lotua. Errealean ibili zen, eta 23 urterekin Athletic-eko bigarren taldeko atzelari lanetan jardutera abiatu zen 2008 denboraldian. Ondoren Mirandes F.Tera egin zuen, bigarren mailara igotzeko play-off-a jokatu. Denboraldi polita egin zuten berak eta taldekideek Mirandeseekin. Momentu politik izan ziren jokalaria eta afizioarentzat. Azkenean igoera lortu ez bazuten ere, Haritz bigarren mailan lehiatuko da aurtan, Recreativo de Huelva taldean hain zuzen ere.



Uztailaren 1 In aurkeztu zuten ofizialki Haritz Borda herritarra Recreativo de Huelva taldeko jokalaria bezala. Arg: albiuzules. es

Itxaso MORENO

Urtetako ametsa bizituko du Haritz Borda lasarteoriatarak. 26 urterekin bigarren mailan jokatu du aurtan atzelariak, hain zuzen ere Reacreativo de Huelvan. Uztailaren 11n aurkeztu zuten eta harez gerotik gogor dabil lanean denboraldian zehar postu bat eskuratu ahal izateko. Honetaz gain, Mirandeseekin jorratutako denboraldi bikaina ere errepasatu dugu hurrengo elkarrizketan.

Noiz hasi zinen futboleko jokatzeko?

Lizeo Santo Tomasen hasi nintzen, bertan ikasi bainuen. Hortik Errealera pasa nintzen, alevinetara. Ondoren denboraldi bat Real Unionen ibili nintzen, lagata. Urte hori amaituta Athletic B-ra pasa, eta ondoren Mirandesa. Denboraldi polit baten ostean, orain bide berri bati ekiteko garaia iritsi zait, Reacreativo de Huelva taldeko fitxatu nau.

Huelvara zoaz aurtan.

Aurrera pausu handia izango da nire karrerari. Bigarren mailara egin dut salto eta orain indarrez beteta aurkitzen naiz nire bizitzako etapa berri honi hasiera emateko.

Ze espektatiba edo helbururik zoaz Huelvara?

Ni hara jolastera noa, beraz helburu bakarra hasieratik gogor aritzea eta lehiatzea izango da. Nire aldetik ahal dudana guztia emango dut jolastu ahal izateko.

Ondoren, entrenatzailearen erabakia izango da taldeko alineazioa, baina bertan sartu nahi dut. Horregatik hasieratik, bigarren maila horretan konpetitiboa izatea daukat xede.

Norbait ezaguna topatuko al duzu?

Ez, dena berria izango da

niretzat. Recreativo de Huelvan dauden jokalariekin ez dut inoiz jokatu, ez ditut ezagutzen. Gainera oraingoa lehenengo aldia izango da etxetik hain urruti jardungo naizela, esperientzia berezia eta berria izango da.

Nola hartu duzu erronka berri hau?

Etxetik urruti noa, baina buruan gauza bakar batekin, esperientzia berria eta itxaropentsua izango dela nire karrerarentzat. Futbolistikoki pausu handia izango da, baita bizitza pertsonalean, etxetik urruti gauza asko ikasiko ditudalako.

Orain Huelvara, baina hitz egin dezagun aurtan Mirandeseekin jorratutako denboraldi politikari buruz.

Hasieratik esan ziguten ekipo polita osatzen genuela eta indarra geneukala goiko postu horietan ibiltzeko. Ekipo polita zen gurea, baina inondik inora ez genuen espero hain goian ibiliko ginenik denboraldian zehar.

Jokatzeko hasi ginenetik



Haritz Borda kontent ibili zen Mirandesen.

lehenengo lau postuetan ibili gara, sorpresa ikaragarria izan zen guretzat.

Mirandes duela bi urte igo zen bigarren B mailara. Lehenengo urtean kosta egin zitzaion kategoria mantentzea eta aurtan igotzekotan egon gara, urte ikaragarria afizioarentzat.

Nolatan hartu zenuen Mirandesa joateko erabakia?

Athletic-ekin kontratua amaitzen zen eta beste talde batera jo behar izan nuen. Hurbiltasunagatik eta ekipo ona zela uste nuen Mirandesa egin nuen.

Bertan gainera euskaldun asko elkartu zineten, ez?

Bai, nik uste plantillako 12 jokalaria edo euskaldunak

ginen, entrenatzailea barne. Giro polita zegoen.

Nola sentitu zara denboraldian zehar?

Egia badinot, nire bizitza osoan egin zaidan liga azkarraren izan da Mirandeseekin bizitakoa. Nahiz hilabete eta erdi luzatu play-off-a jokatu genuelako.

Goian zoaz, gauzak ondo ateratzen zaizkizu, jokalarien artean oso harreman ona geneukan... bazkari, afari pila bat egiten genituen, ordu ugari pasa ditugu elkarrekin eta hori taldearen dinamikan eta elkatasunean asko lagundu du, eta hori ere zelaian ikusteko parada egon da.

Eta zure burua nola ikusi duzu?

Oso ondo. Hasieratik entrenadoreak nirekin kontaktatu zuten. Orduan nire txanda izan zen, konfiantza hori bueltatu behar nion, pixkanaka hobetzen joan nintzen, gustura sentitu nintzen.

Nola izan da play-off-a?

Liga berezia izan da, baina play-off-a beste berezitasun batekin jokatu dugu.

Lehenengo kanporaketa Cadizen kontra egokitu zitzaigun eta etxera emaitza txar batekin iritsi baginen ere, 0-2, buelta eman eta 4-1 irabazi genien.

Azken kanporaketan, Gualajararen aurka, dena gure alde zegoen. Han 0-1 irabazi genuen. Partida ondo hasi bazen ere, bi jokalditan bi gol egin zizkiguten eta azken minututan igoera galdu genuen.

Eta zer moduz hartu zuten jarraitzaileak?

Mirandeseko afizioa ikaragarria da, ez da bigarren B mailako afizio ohikoa. Larunbatero edo igandero zelaira joaten da eta pilo bat animatzen dute. Kantiko ugari dituzte eta asko laguntzen dute taldea.

Play-off osoan zehar erantzun polita eman zuten. Azkenean igoera lortu ez baguen ere gurekiko jarraera paregabea eduki zuten. Partidu osoan animatzen ibili ziren, baita kanporaketa galduta genuenean ere.

Nola izan zen partidu amaiera hori?

Partida amaitu eta leher eginda geratu ginen, etxera joan eta partidua ahazteko gogoak genituen.

Afizioak ospakizunetarako hainbat ekitaldi prestatutak zituen. Igoera ez lortzea kolpe gogorra izan zen, baina afizioak hala ere denboraldi bikaina ospatu nahi zuten.

Gogorik ez baguen ere, ospakizunak zeuden plazara abiatu ginen eta afizioa agurtu genuen.

Plaza beteta zegoen eta momentu orotan gu animatzen ibili ziren. Igoera lortu ez baguen ere, egindako denboraldia eskertu ziguten.

Mirandeseekin denboraldi polita egin zenuen. Eta aurtan ere Recreativon zure tokiaren bila.

Helburu horrekin noa, momentuz aurre denboraldian gogor aritu eta hamaikakoan sartzen saiatuko naiz. Gogoz nago! •

Santa Ana azoka berriro Okendo plazan

Uztailaren 24an, igandean, egingo da artisau azoka eta goizean zein arratsaldean egongo da irekita

Aurtengoa Artisauen XXVII. Santa Ana azoka izango da eta bi urteren ondoren, berriro ere Okendo plazan egingo da.

Iaz bi eguneko Erdi Aroko azoka egin zen asteburu osoan, eta orain bi urte berriz, Dorre parkearen inguruan egin zen Artisauen Santa Ana azoka.

Aurten berriro egingo da artisau azoka eta uztailaren 24an, igandean, eta Okendo plazan bertan izango da. Azoka irekita egongo da goizez eta arratsalde; goizean

10:00etatik 14:00ak arte eta arratsalde 17:00etatik 20:00etara.

Eskulanak eta elikagaiak

Artisau azokatan, ohikoa den bezala, eskulanez gain elikagaiak ere izaten dira, eta noski, Santa Ana azokan ere biak aurkituko ditugu.

Eskulanetako 27 artisau inguru etorriko dira aurtengoa Lasarte-Oriara: oinetakoak, egurrezko apaingarriak, pitxiak, larruarekin egindako apaingarriak, poltsak, diruzorroak, beirarekin egindako



Aurten berriro egingo da Artisauen Santa Ana azoka Okendo plazan.

koadroak, hautsontziak, argazkientzako markoak...

Elikagaietan ere 13 artisau izango dira: baratzeko eta baserriko produktuak, pastelak, erroskilak, ogia, taloak... Guzti horietatik 5 postu lasarte-oriatarrenak izango dira.

Plaza zabald

Okendo plaza eta Askatasunaren parkearen artean dauden arkupeetako lanak azoka egunerako amaituta egotea espero dute antolatzaileek eta Udalak. Horrela bada, azoka zabaltzeko asmoa dute, jen-

dea multzokatu ez dadin eta lasai ibiltzeko, beraz, hainbat postu arkupeetan jarriko dira.

Erromeria

Gainera aurten, arratsaldeko 18:00etan erromeria egongo da plazan. •



Borja Estankona arratiarrarekin batera, Itxaso Etxebeste tolosarra eta Jimmy Arrabit ziburutarra (Itoiz-eko baterijolea) aritu ziren.



Abend kafe-antzokian Laurobak eta Peachy Joke taldeak jo zuten, irudian Laurobaren emanaldia.

Ostiral musikala izan dugu herrian.- Jalgi kafe-antzokiko terrazan, hau da, Sagardotegi plazan, Estankona taldeak kontzertu bikaina eskaini zuen ostiral arratsean. Udako giro aparta aprobetxatuz, kontzertua kalean egitea erabaki zuten eta harrera ona izan zuen Borja Estankonaren taldeak. Jendea gustura egon zen kalean musika entzuten. Abend kafe-antzokian berriz, kontzertuak beranduago hasi ziren, afaldu ondoren. Gaeko 12etatik aurrera, Lauroba (pop rock) eta Peachy Joke (rock) taldeak bere abestiak eskaini zizkieten hurbildutakoiei. Laurobak ordu bete pasatxo aritu zen jotzen eta ondoren Peachy Joke taldearen txanda izan zen. •

Udako Txokoetako zirko berezia iritsiko da kulturetxera

Lehoiak, pailazoak, fokak, malabaristak, magoak, etab. ikusi ziren lehengo ostiralean, uztailaren 15ean, gure herriko kaleetatik barrena.

Desfile koloretsu eta musikala Okendo plazan amaitu zen kalejira alairekin.

tur etxean eskainiko duen emanaldia iragarri zuten Udako txokoeta haurrek.

Zirkoko arduradunek adierazi dutenez, Udako txokoetako haurren gurasoak gonbidatuak daude emanaldi berezi honetaz gozatzeraz.

Gonbita

Era honetara, zirko berezi batek hurrengo ostiralean, uztailaren 22an, 11:30etatik aurrera Manuel lekuona kul-

Eskerrak eman

Udako txokoetako arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete udaltzainei desfilean zehar egindako lanagatik. •



Desfileak zirko bereziak ostiralean Kulturetxean emanaldia eskainiko duela iragarri zuten.

Egunero

Erakusketa


JOSEVISKY, Joseba Larratxe artistaren komikien erakusketa, "Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria". Jalgin.



Egunero

Erakusketa

Begoña Muniategiren "MUNDUKO EMAKUMEAK" margo erakusketa. Olio eta akrilik materialaz egindako margoak. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Artisauen azoka Okendon

SANTA ANAKO ARTISAU AZOKAREN XXVII. edizioa egingo da igandean, uztailaren 24an, Okendo plazan. Guztir 45 artisau inguru izango dira eta horien artean herriko hainbat artisau ere egongo dira. Azoka goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

UZTAILAREN 24AN
OKENDO PLAZAN
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Zubietako Santioak

Uztailak 23

Santioak Zubietan

19:00 Jaien hasiera, buruhandi, kantu-jira, txosnen irekiera...; 21:00 Herri afaria; 00:00 EGANEkin erromeria eta ondoren, ITZARTU taldea.

irteera eta 14:00 biltzaileen itzulera eta azken dantza.

Uztailak 29

Umeen Eguna Zubietan

10:00 Jolasen hasiera; 14:00 Bazkaria; 16:00 Jolasen jarraipena; 19.30 Txokolata; 22:30 Herri antzerkia.

Uztailak 24

Jubilatuaren Eguna

10:30 Meza; 12:00 Herri-Kirolak; 14:00 Jubilatuaren bazkaria; 18:00 Dantzaldi musikala eta ondoren, Uxue eta Lierni trikitilariak, sardina jana, piperrak eta sagardo dastatzea; 23:00 BLAKAREN kontzertua eta ondoren, LAIOTZ taldea.

Uztailak 30

Gau Pasa Eguna Zubietan

16:00 Mus txapelketa. 17:30 Zubietako bikotekako III. Bizikleta lasterketa. 17:30 Umeen antzerkia. 00:00 Triki-Rock Jaia: Mendeku Itxua eta Gozategi. Ondoren, Trikihots taldearen erromeri bikaina.

Uztailak 25

Santio Eguna

09:00 Esnadeia Donostiako txistulari bandarekin; 10:30 Meza; 11:30 hamaiketakoa eta Soka-dantza; 18:00 XIV. Trikitixa txapelketa. Ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak eta buruhandiak; 22:30 Bertso-saioa: B. Gaztelumendi, J. Labayen, A. Oartzabal "Xamoa" eta I. Manzidor "Mantxi". Gai-jartzen I. Iriarte eta ondoren, Nekane eta Oihana trikitilariak.

Uztailak 31

San Inazio Eguna

06:00 eta gero...; 09:00 zikiro prestaketaren hasiera; 10:30 Meza. 11:00 Errebote partidua. 14:00 Zikiro jana 18:30 Gorritiren Showa. Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga Trikitilariak eta buruhandiak. 22:30 Ansorregi eta Larrañaga Trikitilarien jarraipena. 00:00 Jaien amaiera (Suziri, suzko-zezen, etab-ekin...). Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga Trikitilariekin jaien amaiera.

Uztailak 26

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen

Liburutegiko udako ordutegia



Astelehenetik ostiralera 08:00 - 14:00 eta
astelehen arratsaldetan 16:00 - 20:00

Larunbatetan itxita

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Kiroldegiko udako ordutegia

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00- 21:30 egongo da zabalik eta kiroldegia bera 07:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna 09:00-12:00 eta 17:00-21:00. Larunbatetan eta jai egunetan igerilekua 09:00-13:00; sauna itxita; igandean dena itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00. Larunbatetan 09:00-13:00 eta igandean itxita.

Mariskadak ez du jaberik

Lasarte-Oriako ostalarien elkar-teak jakin arazten du, uztailaren 2ko zozketako sariak,

Itsaski saskiak ez duela irabazlerik. 62.062 zenbakia duen txartel saritua Buenetxea tabernan banatu zen. Txartel hori duen herritarra hurbildu dadila elkarteko taberna batetara.

Zabaleta baserriko errotonda eraikitzen

Goiegi Ibarreko eta Zabaleta Berriko hirigintza-garapen lanekin jarraituz, Nasipa SL enpresak Hernani Bidea eta Buenos Aires Aldapa arteko errotonda berria egiteko lanak martxan jarri zituen, Zabaleta baserriaren ondoan.

Lanek ibilgailu-zirkulazioan eragina dute eta behar bezala adierazita dauden behin behinoko desbideratzeekin irtenbidea ematen zaio.

Lan hauek irailean amaitzea aurreikusita dago. Lerro hauen bidez, Lasarte-Oriako Udalak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragipenengatik.

Udalaren Kirolgunea itxita

Uztailaren 25a, astelehena, Udala Kirolgunea (Michelin) publikoari itxita egongo da.

Egun honetan abonatuak beste udal instalakuntza erabiltzeko aukera izango dute nahi izanez gero.

Erabiltzaileei jakinarazten zaie Lasarte-Oriako Udalaren Kiroldegia (igerilekua) Uztailaren 25ean goizez, zabalik egongo dela 9:00etatik 13:00etara

Udalaren kirol-instalazioak bi astetan itxita

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioen 2011. urterako egutegiaren arabera, abuztuaren 1etik 15era bitartean (bi egunak barne), bi asteko geldialdi teknikoa egongo da, instalazioetan mantenimenturako eta garbiketako lanak egiteko, eginkizun horiek ezin baitira egin instalazioak martxan direla, egun horietan abonatuak Urrietako instalazioak erabiltzeko aukera dute.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza edo kexa argitaratzeko

TXINTXARRI aldizkariako *Eskutitzen* atalean edo *Dagokionari* atalean zure iritzia, kexa edo gutun bat idatzi nahi baduzu, idatziarekin batera izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar diguzue guk argitaratu ahal izateko.

Hori bai, zuen izena ez baduzue argitaratu eman nahi, ez da aterako, beste modu batera sinatu daiteke, baina erredakzioan jakin behar dugu pertsona hori nor den.

Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien iritzia eta kexak adierazteko TXINTXARRI aukeratu dutenei.

Goiegi berriaren Zilarrezko Ezteiak

■ San Pedrotan Goiegi jatetxea eraberritu zuteneko 25 urte bete ziren ■ 1610. urteko baserria bada ere, Juan Mari Arsuagak eta Joxepa Anttoni Lizasok hartu zutenean egin zen ezaguna

1610. urtean eraiki bazen ere, Goiegi baserria ez zen Juan Mari Arsuagak eta Joxepa Anttoni Lizasok hartu zuten arte ezaguna egin. Bi hauek egungo jabeen aitaren aldeko aitona-amonak ziren. Goiegi jatetxean lan egingo zuten belaunaldiei eurak emango zieten paso. Asko aldatu da lau mende hauetan Goiegi baserria. 1965.ean sute batek baserriko zati bat, dolarea eta jangela zegoen tokia suntsitu zituen eta ez zen 1986 arte berriro zati hori berreraiki. Urte honetan egungo itxura hartu eta ezagutzen dugun horretan bilakatu zen.

Itxaso MORENO

Urte ugari pasa dira Goiegi baserria eraiki eta Lasarte-Orian agerrialdia egin zuenetik. 1610. urtea izan zen hura, hala ere Juan Mari Arsuagak eta Joxepa Anttoni Lizasok erosi zuten arte ez zen ezaguna egin.

Juan Mari eta Joxepa Anttoni egungo jabeen aitaren aldeko aitona-amonak izan ziren. Goiegin bertan, bere semea, Jose Arsuaga, jaio zen. Ondoren Jose, Maria Luisa Tapiarekin ezkondu zen eta 6 seme-alaba eduki zituzten, egungo jabeak eta Goiegiko bigarren generazioa.

Baserrir arnuta

Animaliak, baratza eta sagardiak aurkitzen ziren garai batean Goiegi baserrian. Garaiko etxe arnuta zen, baina berezitasun batekin, dolarea zeukan eta bertan sagardoa egiten zen. Honetaz gain, etxeko alde horretan ere jangela bat zeukaten.

Azken hau, Aste Santuan publikora irekitzen zen eta bertan sagardoa pitxerretan zerbitzatzen zen. Baina ez zeukan zerikusirik egun ezagutzen dugun "Txotx" formularekin.

Joxepa Anttoni Lizaso eta Maria Luisa Tapiak ziren bazkaria prestatzeko arduratzen zirenak eta menuan jaki nagusiena bakailoa zen.

Betidanik Goiegi baserria "bilgune bat izan da familiarentzat eta oraindik leku garrantzitsua da familiakide guztientzat" azaltzen digute egun Goiegi jatetxeaz arduratzen direnak.

Suaren eragina

Dolarea eta jangela garai horretan jendez betetzen zen, baina zoritxarrez 1965eko urriaren 4an baserriaren zati hau erre zen. "Tximinia baten erruz baserriko azken pisuak su hartu eta egurrezkoa zenez segituan desagertu zen dena".

Gertaera honen ostean, Maria Luisa Tapiak, momentuko arduradunak baserria konpontzeko erabakia hartu eta taberna bat jarri zuen martxan.

Honetaz gain, jangela bat ere ireki zuen, denbora aurrera joan ahala bigarren jangela bat jarri.

Garai berri bat hasi zen Goiegi baserrian, jatetxe batean bihurtu zen eta Maria Luisaren semeek funtzionamenduan lagundu zuten.



Urte ugari egon zen Goiegi Baserria dolare eta jangela erreak zituela. Garai horretako argazkia dugu hau, bertan baratza zegoela.

Konponketaren garaia

Maria Luisa Tapiari erretiroa hartzeko momentua iritsi zitzaion. Momentu honetan bere oinordekoei txanda pasaz, hau da, hirugarren belaunaldiari testigua pasaz.

Hauek jatetxea hartu eta berreraikitzea erabaki zuten "Goiegi zaharrean aukera gutxi zeuden lanerako, ezinbesteko erabakia izan zen" azaltzen digute. Berrikuntza baino lehen bi jangela zeuden, altura ezberdinean jarriak" bata txikia eta bestea handiagoa, baina ezin ziren batu, horrek ere eraldaketarako bidea hartzea behartu zigun" gaineratu dute. 1986an egungo irudiarekin ireki zen publikora Goiegi

berria "ilusio handiz eman genion hasiera etapa berri honi".

Itxura eraldaketaz gain publikoaren etorreran ere aldaketa eman zen "espero ez genituen ezkontza pila etorri ziren, lasarteoriatar ugari hurbildu zen gurera".

25 urteko historia

Mende laurdena pasa da berrikuntzaren garaitik eta oraindik negozio familiarra izaten jarraitzen du. Jatetxea

martxan jarri zuten Arsuaga anai-arreba gehienak erretiratuak badaude ere, oraindik bat geratzen da aktiboan, Goiegik oraindik iraupenerako indarra dauka, jada hirugarren generazioa lanean dirau.

25 urte hauek ospatzeko sanpedrotan menu berezia prestatu zuten bezeroentzako "gainera kartara bazkaltzera etortzen zirenei cava kopa batera gonbidatu genituen, guztiakin ospatu nahi izan dugu data berezi hau". •

Goiegi jatetxean hirugarren generazioa dago lanean "leku garrantzitsua da familiarentzat, bilgune bat" azaldu digute



Goiegi baserria eraberritu baino lehen gaur egun duen itxurarekiko nahiko ezberdina zen. 1965.ean, sutearen ostean, erregabe geratu zen zatian jarri ziren, jangelak eta taberna. Eta 1986.ean egin zen berria.

